

URDAIBAICO ONDARE ARKEOLOGIKOA, BIOSFERA ERRESERBAREN AHATE MOTZA

Urdaibaiko Biosfera Erreserbak dituen helbururen artean eskualde horren babesa integrala kontuan hartzen da. Hori dela eta, padurak, artadiak, akuiferoak, kostaldea, fauna eta, oso ezaguna izan ez arren, duen ondare historiko eta arkeologiko aberatsa ere aintzat artzea da.

Paperean eta legean agertzen bada ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak alor horren eskumena dauka, baina ez da igartzen babesteko edota berreskuratzeko plangintzarik egingo duenik.

Egoera horretan duela urte bi gutxi gora-behera Ekologi Lan Taldeak Urdaibaiko beste talde batzuekin batera URDAIBAICO GALTZAGORRIAK-INGURUGIRO BOLUNTARIOEN PLATAFORMA sortu eta Urdaibaiko ondare natural, historiko, arkeologiko eta etnografikoaren babesa eta berreskurapena erronkatzat hartu zuen.

Aldundiaren arduragabekeriaren froga itzela izan dugu aste honetan. Erakunde horren Mendiko Zerbitzuak Sollubeko mendi publiko baten itzelezko arbola-landaketa baten (pago batzuk eta batez ere pinuak) Tribis erromatarren herriska bat hondatu du. Behartuta eta lotsatuta prentsan agertu dira informazioak nahastuz. Alde batetik, aztarna Kultura Sailak ezaguna zuen eta, horri egin dizkioten kalteen ondorioz (suntsiketa izugarria hiru laurdenetan) aztarnategia berreskuragarria dela baieztatzea irritaren argitasunari irabio bat baino ez da.

Are gehiago, Kultura Sailak berak Atxondo Kobazuloa (Kortzeubi) Santimamiñeko kobazulotik oso gertu, hustu dutela jakin denetik gaia izkutatzen badabil. Kobazulo hori Barandiaranek ezagutarazi zuen mende hasieran, baina hala ere babesa arkeologikoaren arduradunei ez zaie ardurarik merezi. Noiz arte?

Azken urte hauetan oihan praktikak hondamendi arkeologikoen kausarik handiena izaten ari da. GERNIKAKO EKOLOGI LAN TALDEAREN ustez onartezina da Aldundi berako Nekazaritza Saila eta Kultura Sailaren arteko kooperazio minimorik ez izatea. Eta zeresanik ez eremu publikoetan bertako arbola landatu beharrean Foru Aldundiak eta Udal batzuek pinuak eta eukaliptua landatzea gehienbat eta horretarako erabiltzen diren teknika erasokorrak erabiltzea.

GERNIKAKO EKOLOGI LAN TALDEA